

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea jendaurrean jartzea. 2020. urtea

Nik, Jon Zuazo Zuberok, Arabako Legutioko alkateak,

Jakinarazten dut: 2020ko ekainaren 3tik irailaren 3ra arteko (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, hauei dagozkien ordainagiriak:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga - 2020. urtea

Ordaintzeko lekua eta modua.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren web orrian: www.legutio.eus (Nire ordainketa)
- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du, zuzenean, ordainketa helbideratu den finantza entitateetako kontuetako zordunketa, 2020ko irailaren 3an.

Zergadunei ohartarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxa konfederatuetan helbideratu ahal izango dutela.

Premiamendu aldia.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko prozeduraz kobratuko zaizkie, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezartzen duen errekararekin.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Legutio, 2020ko maiatzaren 19a

Alkatea
JON ZUAZO ZUBERO